

IKTEKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA - SISTEMEN INFORMATIKA (ENPLEGU PUBLIKOA EGONKONTZEKO EZOHIKO PROZESUA).

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN ERABAKIA

Aipatu prozesuaren epaimahaiak 2024ko apirilaren 26an hartutako erabakiaren aurka, gora jotzeko errekursoak aurkeztu dira, eranskinetan zerrendatu direnak. Erabaki horren bidez, lehiaketa- eta euskara-faseen behin betiko emaitzak eta erreklamazioen erantzunak argitaratu ziren.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 118.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Epaitegi honek honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.– Hamar lanegunen epea ematea, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta, ariketa egin zuten egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzaten.

Errekurtsoa UPV/EHuko Enpleguaren Atarian kontsulta (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/) daiteke, eranskinetan.

BIGARRENA.– Alegazioak EHUko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar izango da. (<https://egoitza.ehu.es/eu/registroelectronico>) [AZPkoen 2022ko LEPa. Dokumentazioa aurkeztea](#) prozedura aukeratuz

Horretarako, hauetako ziurtagirietako bat erabili beharko da: UPV/EHUko langileen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre.

Esteka honetan ikus daiteke non dauden eta zein ordutegi duten bulegoak: http://www.ehu.es/oficinas_registro.html

Beren idazkia posta-bulegoetan aurkezten dutenek UPV/EHUko Gerentzia/ Gerentziaordetazari bidali beharko diote, eta UPV/EHUko Leioako Liburutegiko eraikineko helbidera bidali (Sarriena auzoa z/g, 48940) eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. art.).

Leioan, sinadura elektronikoa agertzen den datan

Epaimahaiko idazkaria